

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

Industria Administrazioko Arabako Lurralde Ordezkaritza

Iragarkia, 2026ko irailaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Arabako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Arabako Aiara eta Okondo udal-mugarteetan, «Pe Pando» parke eolikorako aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), «Pe Pando» parke eolikorako aurkeztutako aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Eskatzailea: Macrina Solar 33, SL (IFK: B56773153).
- Tartean dauden udal-mugarteak: Aiara eta Okondo (Araba).
- Haize-sorgailuen kopurua: 6.
- Instalatu den potentzia gordina: 30 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

POLIGONALAREN UTM KOORDENATUAK (ETRS89 HUSO 30)		
ERPINA	UTM X	UTM Y
1	493049,8	4777347,64
2	493156,85	4776797,1
3	494128,6	4776363,69
4	496148,74	4777145,03
5	496408,56	4776694,53
6	494400,9	4775952,37
7	494511,89	4775669,87
8	495096,32	4775147,46
9	495591,44	4775114,95
10	495630,65	4774700,19
11	495142,64	4774693,37
12	494156,48	4775409,19
13	493730,11	4776049,47
14	492790,61	4776468,63
15	492533,24	4777305,29
16	492797,11	4777528,39
17	493049,8	4777347,64

Hori guztia argitara ematen da, eta hogeit eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek

aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Industria, Arabako Lurralde Ordezkaritzan, izapidetze elektronikoaren plataformaren bidez, GE-Y prozeduraren bidez, hemen: <https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu/>.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 3a

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Arabako lurralde-ordezkaria
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE